

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2024ko martxo

Aurkibidea

1. Gizarte Segurantzako afiliazioa

2. Inflazioa

3. Kanpo merkataritza

4. PMI konposatua

5. Sentimendu ekonomikoa

6. Batzordearen aurreikuspenak

Eranskina

1. Gizarte Segurantzako afiliazioa %2,0 hazi zen otsailean.

Hazkundera biziagoa izan zen emakumeen artean, zerbitzuen bultzadari esker.

2. KPI indizea lau hamarren igo zen urtarrilean.

Azpiko inflazioa %3,8ra jaitsi zen eta indize orokorra baino hiru hamarren gorago dago.

3. EAEk atzerrira bidalitako esportazioek beste errekor bat ezarri dute.

2023an, ia 32.645 milioi euro balio zuten produktuak saldu ziren.

4. Euroaren eremuko PMI konposatuak susperraldia iradokitzen du.

Zerbitzuen bilakaera ona urrun dago manufactureren ahuleziatik.

5. Eurogunearen sentimendu ekonomikoa zertxobait okertu zen otsailean.

Zerbitzuek bilakaera negatiboa erakutsi zuten eta industria egonkor mantendu zen.

6. Europako Batzordeak 2024rako hazkundera murriztu du, baina inflazioa ere jaitsi du.

Europar Batasunean %0,9ko hazkundera aurreikusten du aurten eta %1,7koa datorren urtean.





GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Gizarte Segurantzako afiliazioa %2,0 hazi zen otsailean

Gizarte Segurantzako afiliazioa %2,0 hazi zen otsailean, hau da, aurreko bi hilabeteetan baino hamarren bat gehiago. Beraz, aurreko hiruhilekoetan lan merkatuak erakutsi zuen hedapen tonuari eutsi zaio. Halaber, horri esker, milioi bat afiliatutik gorako maila finkatuta geratu da. Aurreko urteko hil beraren aldean, 19.400 afiliazio berri baino gehiago eskuratu dira.


Sexuaren araberako azterketak adierazten du afiliazioaren hazkundeak dinamikoagoa izaten jarraitzen duela emakumeen artean gizonen artean baino. Zehazki, lehenengoen urte arteko tasa %2,3koa izan zen, aurreko bi hilabeteetako balioak berdintzen dituena; gizonen artean, berriz, %1,6ko tasa jaso da. Afiliazio berri guztietatik, 11.100 emakumeenak izan dira eta 8.300 gizonenak.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

GUZTIRA


Urte arteko aldakuntza tasa

OTSAILEKO AFILIAZIOA
%2,0




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA INDUSTRIAN


Urte arteko aldakuntza tasa



Sektoreen eta jarduera adarren araberako bilakaerak erakusten du zerbitzuek une ona bizi dutela, %2,4 igo baitira, azken lau hilabeteetako erritmorik handiena. Bestalde, industriak moteldu egin zuen erritmoa, %1,1eraino, eta eraikuntzak ozta-ozta (%0,1) sortu zuen enplegua. Nabarmentzekoa da hezkuntza eta osasun

AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



jardueretako afiliazioen igoera, biak 3.000 alta berrien gainera, baina zifrak ere esanguratsuak izan dira ostalaritzan (2.850), jarduera profesionaletan eta manufacturetan (biak 1.900 baino gehiagorekin). Jaitsierak lehen sektorerara eta etxeko zerbitzuetara mugatzen dira, eta kopuru txikiak izan dira bi kasuetan.

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK

	2023ko otsaila	2024ko otsaila	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	988.149	1.007.567	19.418
Industria manufakturagileak	172.375	174.292	1.917
Merkataritza	133.564	134.382	818
Osasun arloko jarduera	108.897	111.983	3.087
Hezkuntza	81.580	85.117	3.537
Ostalaritza	66.725	69.574	2.850
Administrazio jarduerak	66.991	67.669	679
Lanbide jarduerak	61.223	63.135	1.912
Eraikuntza	58.388	58.417	29
Administrazio publikoa	51.748	52.433	685
Garraioa	44.316	45.442	1.126
Etxeko langileak	29.166	29.051	-115
Informazioa eta komunikazioa	25.918	27.594	1.676
Bestelako zerbitzuak	27.085	27.217	132
Jarduera artistikoak	18.891	19.649	758
Finantza jarduerak	16.884	17.094	210
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	11.462	11.413	-48
Ur horniketa	6.360	6.391	31
Higiezin jarduerak	4.287	4.347	61
Energia horniketak	1.683	1.749	65
Erauzketa industriak	530	532	2
Lurraldez kanpoko erakundeak	77	83	7


Iturria: Gizarte Segurantza.

INFLAZIOA

KPI indizea lau hamarren igo zen urtarrilean

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Euskadiko KPIaren urteko tasa %3,5ean kokatu da aurtengo urtearen hasieran, aurreko hilean erregistratutako tasa baino lau hamarren gorago, argindarraren prezioetan izandako garestitzeak eraginda. Hori horrela izanda, urtarrileko igoera horrekin, KPIak goranzko bidea berreskuratu du, hiru hilabetez jarraian beheranzko joera erakutsi ondoren.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023	2024ko urtarrila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	8,0	3,6	3,5	3,5
Azpiko inflazioa (%84,6)	5,1	6,2	3,8	3,2
- Elikagai landuak (%15,4)	10,2	12,5	6,1	0,9
- Industria ondasunak (%20,2)	4,7	4,7	1,9	0,4
- Zerbitzuak (%49,0)	3,3	4,3	3,8	1,9
Hondar inflazioa (%15,4)	19,5	-6,4	1,9	0,3
- Landu gabeko janariak (%6,5)	10,8	7,3	7,7	0,5
- Energia (%8,9)	26,6	-17,0	-2,7	-0,2

AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT PETROLIO UPELAREN PREZIOA


Hileko batez bestekoa. Dolarrak upeleko



Elektrizitatearen prezioen igoera BEZaren tasaren aldaketak eragin zuen. Hain zuzen ere, urtarrilaren 1etik, argindarraren ordainagiriari aplikatu beharreko tasa %5etik %10era igo da. Beste aldetik, elektrizitatearen gaineko zerga berezia %0,5etik %2,5era igo zen, eta, azkenik, energia elektrikoaren ekoizpen balioa %3,5eko tasarekin berreskuratu da. Era berean, elikagaiak

TTF GAS NATURALAREN PREZIOA

Hileko batez bestekoa. Euro MWh-ko



maila altuetan jarraitu zuten, nahiz eta prezioak erritmo motelagoan igo ziren, %7,0an kokatuz, martxoan bere maximo historikora iritsi ondoren, %15,5eko erregistroarekin. Aitzitik, nota positiboa azpiko inflazioaren eskutik etorri zen, %3,8an kokatu baitzen, 2022ko martxotik izandako tasarik txikiena, inflazio globalarekiko diferentziala hiru hamarrenetan bakarrik utziz.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2024ko urtarrila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	3,5	3,4	2,8
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	7,0	7,4	5,4
Edari alkoholdunak eta tabakoa	4,6	4,2	6,6
Jantziak eta oinetakoak	1,8	2,5	1,9
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	1,5	1,5	-1,2
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	2,4	1,7	1,9
Osasuna	2,4	2,2	2,8
Garraioa	0,1	-0,1	0,9
Komunikazioak	0,6	0,5	-1,2
Aisia eta kultura	3,0	3,1	3,3
Hezkuntza	2,2	2,8	4,1
Jatetxeak eta hotelak	5,3	5,4	5,4
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	4,3	3,4	4,3

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioa.



EAEk atzerrira bidalitako esportazioek beste errekor bat ezarri dute


ESPORTAZIOAK GUZTIRA

Milioi euro

BATEZ BESTEKO HAZKUNDEA

2023

%0,3




Martxotik urrira bitartean esportazioek beherakada etengabeak izan zituzten arren, urte hasieran eta amaieran salmentek bilakaera ona izan zuten, eta, horri esker, urteko balantzea positiboa izan zen, beste kopuru maximo bat lortuz, Eustatek egindako lehen kalkuluen arabera. Hain zuzen ere, atzerrirako guztizko esportazioak %0,3 hazi ziren 2022an erregistratutakoaren aldean, eta horrek EAEko produktuen ia 32.645 milioi euro

atzerrira saltzea ekarri zuen. Esportazio energetikoen uzkurdurak (-%31,2), neurri handi batean prezioen beherakadak eraginda, azaltzen du bilakaera ia laua 2022rekiko, energiaz bestelakoak 31.000 milioi eurora hurbildu baitziren lehen aldiz. Inportazioen bilakaerari dagokionez, nabarmen jaitsi ziren, sektore guztiek dinamismo txikiagoa erakutsi zutelako, bai energetikoek, bai energiaz bestelakoek.


ESPORTAZIO EZ ENERGETIKOAK

Milioi euro



ENERGIAKO ESPORTAZIOAK

Milioi euro



ESPORTAZIOAK HELMUGAREN ARABERA. 2023

Herraldea	%
Alemania	15,8
Frantzia	14,9
AEB	8,4
Erresuma Batua	6,3
Italia	5,6
Belgika	4,9
Portugal	4,4
Herbehereak	4,1
Polonia	2,5

Esportazioen datuak, positiboa izan arren, merkataritza balantzak bizi duen ahultasuna ezkututzen du, eta, normala denez, Alemania edo Frantzia bezalako herrialdeen hoztea islatzen du, EAEko produktuen erosle nagusiak baitira. Izan ere, 2021ean eta 2022an herrialde horietarako esportazioak bi digitutara hazi ondoren, 2023an Alemanian saldutakoa %2,9 baino ez zen handitu, eta Frantziara bideratutakoak, berriz, %1,7 murriztu ziren.


ESPORTAZIOEN BANAKETA. 2023

Arantzel taldea	%
Ekipamendu ondasunak	47,4
Makinak eta aparatuak	18,6
Garraio materiala	28,8
Ohiko metalak eta manuf.	20,9
Plastikoa eta kautxua	7,0
Nekazaritzako produktuak	6,3
Produktu mineral, energetikoak	6,0
Produktu kimikoak	3,0
Papera	2,3

Adar esportatzaile nagusiei dagokienez, ez zen alde handirik egon sailkapen historikoarekiko. Ekipamenduko ondasunak eta metal arruntak zerrendaburu izan ziren, eta produktu energetikoak, 2022an hirugarren postuarekin igo baitziren prezioen igoera nabarmenak bultzatuta, berriro kokatu ziren plastikozko eta kautxuzko produktuen eta nekazaritzako produktuen atzetik.

INPORTAZIOAK GUZTIRA


Milioi euro



Iturria: Eustat

SALDOA GUZTIRA

Milioi euro





PMI KONPOSATUA

Euroaren eremuko PMI konposatuak susperraldia iradokitzen du


Euroguneko PMIa 48,9an kokatu zen otsailean, hots, aurreko datua baino puntu bat gorago. Oraindik ekonomiaren uzkurdua eremuan murgilduta dagoen arren, azken zortzi hilabeteetan izan duen baliorik handiena da. Oro har, hurrengo hamabi hilabeteetarako enpresen konfiantza areagotu zen eta, horren ondorioz, enpleguak gora egin zuen azken zazpi hilabeteetako erri-

mo bizienean. Beraz, badirudi eurogunearen dezelerazioa moteltzen ari dela.


Igurikimene hobekuntza hori zerbitzuen sektoretik dator, eta horren adierazlea uzkurdua eta hedapena bereizten dituen puntuan (50,0) kokatu da. Bestalde, manufakturen zailtasunek garrantzitsuak izaten jarraitzen dute, eta 46,2ko indizea dute.

PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA


2024KO OTSAILA
48,9




MANUFATUREN PMI. EUROGUNEA



ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA




PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




Euroguneko bi motor nagusiek kontrako jokabideak erakutsi dituzte. Alde batetik, Alemaniak, bere industriak oso baldintzatuta, atzerapausoa eman du eta bertako indizea 46,1era jaitsi da. Bestetik, Frantziak hiru puntu pasatxoko hobekuntza esanguratsua lortu du (47,7), zerbitzuen (2,5 puntu igo da) eta manufakturen (5,3 puntu berreskuratu ditu) bilakaera onari esker.

Eurogunetik kanpo, Erresuma Batua oso posizio dinamikoan dago (53,3), goranzko joera argian. AEBek ere (51,4) ekonomiaren hedapen eremuan jarraitzen dute. Azkenik, Japoniak (50,3) bere hazkundera ahuldu du.


PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



PMI KONPOSATUA. AEB



PMI KONPOSATUA. JAPONIA



Iturria: Markit



SENTIMENDU EKONOMIKOA


Eurogunearen sentimendu ekonomikoa zertxobait okertu zen otsailean

SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROGUNEA

2024KO OTSAILA

95,4

Otsailean, euroguneke eta Europar Batasuneko sentimendu ekonomikoaren indizea 95,4an kokatu zen. Bi kasuetan, beherakada gertatu zen aurreko datuarekin alderatuta. Azken datu horrekin, hogeit hamar hilabete dira sentimendua bere batez besteko balioaren azpitik dagoela. Industriarekiko konfiantzak ez zuen aldaketa handirik izan, zeren eta ekoizpena handitu bazen ere, atzerriko eskaerak jaitsi zirelako. Zerbitzu-




en kasuan, narriadura esanguratsua hauteman zen osagai guztietan. Familien konfiantza zertxobait hobetu zen familiaren finantzei buruzko iritzi positiboagoaren ondorioz. Aitzitik, txikizkako merkataritzak atzerapausoa eman zuen emaitza txarreatatik eta stocken bolumen desagokiagatik. Azkenik, eraikuntzak irudi negatiboagoa ere erakusten du, eskaria nahikoa ez delako.


SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROPAR BATASUNA

2024KO OTSAILA

95,4




SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA




Analisisa herrialdeka eginda, Alemaniak erakusten du bilakaerarik ezkorrena eta bere indizea 89,0ra jaitsi da. Herrialdeko industriak sentimendua okertzen jarraitzen du eta sektorearen batez besteko balio historikotik oso urrun dago. Zerbitzu alorreko enpresen konfiantzak ere okerrera egin du, eta gainontzeko hiru atalek egonkortasuneko irudia eskaini dute. Frantzian, okertzea hamarren gutxi batzuetara mugatu da, eta indizea 97,6an kokatu da, batez besteko historikotik gertu. Alemanian ez bezala, herrialde horretan industria da emaitzarik onena lortu duen sektorea.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA




Hegoaldeko herrialdeen artean, Italia berriro jaitsi da 100. mailatik, eta 99,2an kokatu da. Bertako industriak tonu ezkor samarra erakusten du, baina egonkorra; zerbitzuak, eraikuntza eta txikizkako merkataritza, berriz, eremu positiboan daude, nahiz eta horrek ez dituen familiak animatzen. Azkenik, Espainia da eremu baikorren jarraitzen duen herrialde nagusietako bakarra (102,4), eta ez du aldaketa handirik izan urtarillarekin alderatuta. Zerbitzuen eta eraikuntzaren sendotasunarekin batera, hobetzen ari den industria eta hedatzen ari den txikizkako merkataritza aipatu behar dira.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA



SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA




Iturria: Europar Batzordea.

EUROPAKO BATZORDEAREN AURREIKUSPENAK

Europako Batzordeak 2024rako hazkundera murriztu du, baina inflazioa ere jaitsi du

EUROPAR BATASUNAREN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Europako Batzordeak EBko ekonomia 2024an %0,9 haziko dela aurreikusi du eta 2025ean, berriz, %1,7ra arte hobetuko dela. Nahiz eta ekonomia garrantzitsu batzuek, hala nola Alemaniak, Frantziak eta Herbehereek, beheranzko joera izan duten 2024. urterako hazkunde aurreikuspenetan, EBko ekonomia, oro har, hazkundera itzultzea espero da, %2tik gora haziko diren hainbat ekonomia txikiago barne. 2024ko lehen hiruhilekoan egoera ekonomikoa moteldu bada ere, urtean zehar jarduera pixkanaka bizkortzeko baldintzak mantentzen dira.

BPG. EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2023	2024	2025	2024	2025
Europar Batasuna	0,5	0,9	1,7	-0,4	0,0
Eurogunea	0,5	0,8	1,5	-0,4	-0,1
Alemania	-0,3	0,3	1,2	-0,5	0,0
Belgika	1,5	1,4	1,5	0,0	0,0
Espania	2,5	1,7	2,0	0,0	0,0
Frantzia	0,9	0,9	1,3	-0,3	-0,1
Italia	0,6	0,7	1,2	-0,2	0,0
Herbehereak	0,2	0,4	1,6	-0,7	-0,1
Portugal	2,3	1,2	1,8	-0,1	0,0
Irlanda	-1,9	1,2	3,2	-1,8	-0,2
Grezia	2,2	2,3	2,3	0,0	0,1
Austria	-0,7	0,6	1,4	-0,4	0,1


ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




FRANTZIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Azelerazio horrek, soldata errealeen hazkundeak eta enplegu zifra sendoek lagunduta, kontsumoaren hazkundera ekarriko du, nahiz eta aurrezki tasak handia izaten jarraituko duen. 2024rako inbertsioaren aurreikuspenak hobetu egin dira 2023an izan zirenen aldean, finantzaketa baldintzak lehen aurreikusitakoa baino hobekiago izango direla pentsatzen baita orain. Inflazioak moteltzen jarraituko du, uste zen baino intentsitate handiagoarekin, eta aurreikusten da eurogunean %2,7ra jaitsiko dela 2024ko batez bestekoan, eta %2,2ra, berri, 2025ekoan.

KPI. EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2023	2024	2025	2024	2025
Europar Batasuna	6,3	3,0	2,5	-0,5	0,1
Eurogunea	5,4	2,7	2,2	-0,5	0,0
Alemania	6,0	2,8	2,4	-0,3	0,2
Belgika	2,3	3,5	2,3	-0,7	0,4
Espainia	3,4	3,2	2,1	-0,2	0,0
Frantzia	5,7	2,8	2,0	-0,2	0,0
Italia	5,9	2,0	2,3	-0,7	0,0
Herbehereak	4,1	2,6	2,0	-1,1	0,0
Portugal	5,3	2,3	1,9	-0,9	-0,5
Irlanda	5,2	2,2	1,9	-0,5	-0,2
Grezia	4,2	2,7	2,0	-0,1	-0,1
Austria	7,7	4,0	3,0	-0,1	0,0

Iturria: Europar Batzardea eta Eurostat.

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT.

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2022		2023		
			IV	I	II	III	IV
BPG	6,0	5,4	3,4	2,3	1,5	1,6	1,6
Barneko azken kontsumoa	5,2	6,0	4,4	1,9	1,5	1,1	—
Familien kontsumoa	5,8	7,7	5,1	1,7	1,3	1,5	—
Administrazioaren kontsumoa	3,2	0,7	2,2	2,4	2,0	-0,6	—
Kapital eraketa gordina	5,9	8,7	4,8	1,6	2,5	2,6	—
Barne eskaria	5,3	6,7	4,5	1,8	1,7	1,4	—
Esportazioak	10,7	17,1	8,6	6,3	-2,5	-0,6	—
Inportazioak	9,4	18,7	10,2	5,5	-2,0	-0,7	—
Lehen arloa	15,1	-8,7	-7,3	2,1	-6,7	-2,3	—
Industria eta energia	5,3	4,7	2,4	1,1	-0,5	0,2	—
Eraikuntza	1,0	6,7	6,0	0,9	4,2	2,9	—
Zerbitzuak	6,6	5,9	3,7	2,9	2,1	2,0	—
Balio erantsi gordina	6,1	5,5	3,4	2,4	1,5	1,5	—
ekoizkinen gaineko zerga garbiak	5,2	4,6	3,1	1,6	1,3	1,6	—
Enplegua	2,7	2,8	1,8	1,5	1,5	1,6	2,0

EUSKAL EKONOMIAREN TERMOMETROA. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA.

Urtarrila

2023											2024
Otsa.	Mart.	Apir.	Maia.	Eka.	Uzta.	Abuz.	Irail.	Urri.	Azar.	Aben.	Urtar.
101,1	98,2	93,5	87,7	84,6	85,6	85,7	88,3	88,4	86,0	83,1	83,6
X<50 Atzeraldia				50<X<100 Hazkunde leuna				X>100 Hazkunde bizia			

EAEko ekonomiaren termometroak zertxobait hobetu du bere emaitza urtarrilean, 83,6an kokatu baita, hots, aurreko datua baino bost hamarren gorago. Emaitza horrek pentsarazten du 2024aren hasieran EAEko ekonomiak azken hiruhilekoetako egonkortasunari eutsiko diola. Industriak emaitzak hobetu ditu, zerbitzuek eta eraikuntzak joera positiboa erakusten jarraitu duten bitartean. Lan merkatuari dagokionez, zerbitzuen sektorea da enplegu sorkuntzaren liderra beste hilabete batez, baina industriaren sektoreak ere lanpostu berriak sortu ditu, nahiz eta azken horren bilakaera apalagoa izan den.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

IRAILEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA .

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023		2023	2024				2024
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	1,7	1,4	1,7	1,5	1,7	2,3	2,9	2,1
Barneko azken kontsumoa	2,2	1,4	1,8	1,6	0,9	1,7	2,4	1,7
Familien kontsumoa	2,5	1,5	1,8	1,6	0,6	1,9	2,7	1,7
Administrazioaren kontsumoa	1,1	1,0	1,6	1,6	1,9	1,0	1,7	1,5
Kapital eraketa gordina	4,6	2,2	2,7	1,8	3,8	5,5	5,9	4,2
Barne eskariaren ekarpena	3,3	1,3	2,1	1,3	1,5	3,0	3,7	2,4
Kanpo eskariaren ekarpena	-1,5	0,1	-0,3	0,2	0,1	-0,7	-0,9	-0,3
Lehen arloa	-8,6	5,6	-2,2	6,3	7,8	5,3	5,9	6,3
Industria	2,6	1,5	1,2	1,5	1,6	2,2	0,7	1,5
Eraikuntza	0,7	0,0	1,5	0,9	2,0	2,7	3,1	2,2
Zerbitzuak	1,7	1,3	2,0	1,3	1,6	2,4	3,5	2,2
Balio erantsi gordina	1,8	1,3	1,7	1,4	1,6	2,4	2,9	2,1
ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,9	2,6	1,8	2,3	1,7	1,5	2,9	2,1
Lanaldi osoko lanpostuak	1,1	1,2	1,3	1,3	1,1	1,8	2,1	1,6
Landunak (BJA)	0,8	0,5	0,7	0,8	0,4	0,8	1,2	0,8

EAEKO BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK.

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025		2024	2025
Eusko Jaurlaritza	2,1	1,8	Confebask	1,6	—
BBVA	1,9	2,7	Laboral kutxa	1,4	—
Ceprede	1,7	2,0			
Hispalink (BPGaren aldakuntza)	1,6	2,1			

ESTADÍSTIKA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023	2022		2023		
			IV	I	II	III	IV
BPG	5,8	2,5	3,8	4,1	2,0	1,9	2,0
Kontsumo pribatua	4,8	1,7	2,2	2,6	1,7	0,4	2,3
Kontsumo publikoa	-0,2	3,8	1,6	1,9	4,6	4,6	4,4
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,4	0,6	-0,4	-0,2	1,3	-0,1	1,6
- Aktibo finko materialak	2,1	0,8	-0,1	0,3	1,7	0,0	1,3
- Eraikuntzan	2,6	2,2	1,2	3,1	3,6	1,1	1,1
- Ekipamendu ondasunetan	1,9	-1,8	-2,0	-4,4	-1,8	-2,0	1,2
- Jabetza intelektualaren produktuak	3,8	-0,3	-1,9	-2,8	-0,8	-0,4	3,0
Nazio eskaria (ekarpena)	2,9	1,7	0,7	1,3	1,9	1,4	2,1
Esportazioak	15,2	2,4	8,7	9,7	0,0	-1,1	1,2
Inportazioak	7,0	0,3	0,1	2,3	-0,3	-2,5	1,7

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025		2024	2025
CEPREDE	2,1	2,4	UniCredit	1,5	1,5
Goldman Sachs	1,9	1,7	BBVA	1,5	2,5
Rabobank	1,9	1,9	La Caixa	1,4	2,0
S&P Global Ratings	1,8	2,0	Societe Generale CIB	1,3	1,1
Oxford Economics	1,8	1,7	Barclays	1,3	1,4
CEOE	1,8	2,0	Econ Intelligence Unit	1,2	1,8
FUNCAS	1,7	2,0	HSBC	1,2	1,5
Grupo Santander	1,6	2,0	Batez bestekoa	1,5	1,8
Moody's Analytics	1,6	1,8	Gobernua (2023-10)	2,0	—
Fitch Ratings	1,6	2,0	Espainiako Bankua (2023-12)	1,6	1,9
Inst. Estud. Económicos	1,6	—	Europar Batzordea (2023-11)	1,7	2,0
Repsol	1,5	—	NDF (2024-01)	1,5	2,1
UBS	1,5	1,9	ELGA (2024-02)	1,5	2,0

Iturria: Consensus Forecast.

ESTADÍSTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023	2022		2023		
			IV	I	II	III	IV
AEB	1,9	2,5	0,7	1,7	2,4	2,9	3,1
Txina	3,0	5,2	2,9	4,5	6,3	4,9	5,2
Japonia	1,0	1,9	0,7	2,5	2,3	1,6	1,1
Kanada	3,8	1,1	2,2	1,8	1,0	0,5	0,9
Europar Batasuna	3,4	0,5	1,7	1,1	0,5	0,0	0,3
Eurogunea	3,4	0,5	1,8	1,3	0,6	0,0	0,1
Alemania	1,8	-0,3	0,8	-0,1	0,1	-0,3	-0,2
Frantzia	2,5	0,7	0,7	0,9	1,2	0,6	0,7
Erresuma Batua	4,3	0,1	0,6	0,3	0,3	0,2	-0,2
Italia	3,9	0,7	1,6	2,1	0,3	0,1	0,5
Herbehereak	4,3	0,1	3,0	2,1	-0,1	-0,5	-0,8

Iturria: Eurostat eta ELGA.

CONSENSUS FORECAST. 2024KO OTSAILA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2024	2025	2024	2025	2024	2025
AEB	2,1	1,7	2,6	2,2	4,0	4,1
Japonia	0,7	1,0	2,3	1,6	2,5	2,4
Kanada	0,6	1,9	2,6	2,1	6,3	6,2
Europar Batasuna	0,8	1,6	2,7	2,2	—	—
Eurogunea	0,5	1,3	2,3	2,0	6,7	6,7
Alemania	0,3	1,1	2,5	2,1	5,9	5,7
Frantzia	0,7	1,3	2,4	1,9	7,5	7,5
Erresuma Batua	0,3	1,1	2,6	2,1	4,6	4,7
Italia	0,5	1,0	1,9	1,9	7,7	7,7
Espainia	1,5	1,8	2,9	2,1	—	—
Herbehereak	0,5	1,4	2,5	2,1	—	—

Iturria: Consensus Forecast.